

**UDALEKU IREKIAK  
OIARTZUN 2013  
HEZITZAILEEN LAN POLTSARAKO OINARRIAK**

Aurreko urteetan bezala, aurtengo uztaileko Udalak udaleku irekiak antolatu ditu **Uztailak 1tik 26ra** bitarte. Haur Hezkuntzako 2. zikloko eta Lehen Hezkuntzako haur eta gaztetxoentzat.

**1. LANPOSTU ESKAINTZA**

Honen bitartez, **hezitzaile** bezala aritzeko gazteen lan poltsa osatzeko **Udalak eta Ttiruki aisialdi elkarteak** erabiliko dituzten irizpideak jakinarazten dira, honako hauek izango direlarik:

Oiartzungo udaleku irekietarako honako lanpostu hauek eskaintzen dira:

- Hainbat lanpostu hezitzaile lanak egiteko (talde arrunta)
- Lanpostu 1 hezitzaile lanak egiteko (Saharar taldea)
- Behar berezietako haurrekin eta autobuseko arduraduna izateko lanpostua(k).

**2. LANPOSTU ASIGNAZIO BALDINTZAK ETA EZAUGARRIAK**

Behar berezietarako eta Saharar taldeko arduraduna izateko hezitzaileak aurkeztuko ez balitz, Ttiruki aisialdi elkarteak eskumen osoa edukiko du talde arrunteko zerrendatik hezitzaileak aukeratzeko.

Oiartzungo udalak, lan poltsa hau beste hainbat egitasmoetan sor daitezkeen beharrak asetzeko erabili ahal izango du.

Aurtengo udalekuan hamabostaldiko izen emateko aukera eskaini da. Hortaz, hezitzaileen kontratazioa lehenengo hamabostaldirako, bigarren hamabostaldirako edo hilabete osorako izan daiteke, behararen arabera. Aukeraketa hau, Ttiruki Aisialdi elkartearen eskutik egingo da, puntuazio zerrendaren arabera.

**3. KONTRATAZIO EPEA ETA LAN-ORDUTEGIA**

Aukeraketa prozesuaren emaitzen zerrenda arabera, udaleku guztietarako (**Uztailak 1tik 26ra**), lehen hamabostaldirako (**Uztailaren 1etik 12ra**) edo bigarren hamabostaldirako (**Uztailaren 15-26**) kontratazioak izango dira, guztietan ordutegi berdina izanik: **Goizeko 8:55 tatik-14:05 tara**.

**4. IZEN EMATE EPEA**

Izen ematea **martxoaren 11tik 23ra** Oiartzungo Gazte Informazio Bulegoan egingo da.

**Gazte Informazio Bulegoko ordutegia:**

Astelehenetik-ostiralera: 17:30-19:30 ----- Larunbata: 10:30-13:30

**Harremanetarako:**

Telefona: 943 49 11 05 Posta elektronikoa: gazteinfo @oiartzun.org

## **5. PROGRAMAKETA LANTZEKO JARDUERA**

Ekainak 1 larunbata, programaketa zehaztuko da hezitzaileekin Abaraxka udal ludotekan. Egun horretarako egitaraua:

10:00 Aurkezpena eta taldeen banaketa  
11:30 Atsedena  
12:00 Programaketa  
13:00 Bazkaria (norberaren kontura)  
14:30 programaketa bukatu arte

**Udalekutan hezitzaile lana egin ahal izateko ezinbestekoa da Ekainaren 1ean programaketaren garapenean parte hartzea.**

## **6. HAUTAKETA PROZESUA ETA BALORAZIOA**

Hautaketa prozesua bi fase izango ditu: atal teorikoa eta atal praktikoa. Hezitzaileen puntuazio orokorra bi atalen arteko baturarekin osatuko da:

- **Atal teorikoa:** curriculumaren balorazioa, jarraian agertzen diren sei puntuak baloratuta. **Puntuazio orokoraren % 40**
- **Atal praktikoa:** Oiartzungo udala eta Ttiruki aisialdi elkarteak Abaraxka udal ludotekan eginiko saio praktikoa. Saio hauek astelehenetik ostiralera egingo dira arratsaldeko 16:30atik 19:30ak arte. Izena ematen dutenen artean taldeak egin eta jakinaraziko da zein egun egokitu zaizuen saio praktikoa egiteko. Saio hau ez da baztertzaileria izango, baina bai puntuagarria. **Puntuazio orokorraren %60.**

## **ATAL TEORIKOA**

**1. Euskara maila:** EGA agiria dutenei 3 puntu emango zaizkie

**2. Aisialdiko tituluen jabe izatea,** honako balorazioaren arabera:

Hezitzaile agiria: 6 puntu

*Aisialdiko hezitzaile tituloaren atal teoriko egina dutenentzat eta praktikak egin behar dituztentzat, 4 hezitzaile lanpostu gordeko dira. Hauek ere puntuazio bitartez sartuko dira.*

**3. Heziketarekin harremana duten ikasketak izatea** (Magisteritza, Pedagogia, Psikologia, Gizarte Hezkuntza eta Gizarte lana). Honako balorazioaren arabera:

Lizentziatura 3 puntu  
Diplomatura 2 puntu  
Goi mailako zikloak puntu 1

*Gehienez, 3 puntu emango dira atal honetan*

**4. Esperientzia** edukitzea:

- Ludoteka, gazte lokalak, udalekuak edo kanpaldietan hezitzaile bezala. 0,5 puntu udaleku edo kanpaldi bakoitzarengatik. (gehienez 4 puntu)
- Eskolaz kanpoko jarduera. 0,25 puntu jarduera bakoitzarengatik. (gehienez puntu 1)

*Gehienez, 5 puntu emango dira atal honetan*

**5. Aisialdiarekin** zerikusia duten **espezializazio-ikastaro edo ikasketa** bakoitzarengatik ( euskal jolasen ikastaroa, behar berezien ikastaroa,...) 0.5 puntu.

*Gehienez, 2 puntu emango dira atal honetan.*

**6. Bestelako espezializazioak:**

- Sorosle titulua:1 puntu
- Lehen sorospen ikastaroa. 0.5 puntu

*Gehienez, 1 puntu emango dira atal honetan*

**OHARRA:** Aukeraketa egin ondoren, lanerako hautatuko hezitzaileek beren ziurtagiri guztiak konpultsatu beharko dituzte udaletxean.

## **ATAL PRAKTIKOA**

**Atal hau puntuagarria izango da baina ez baztertzaila.**

Atal praktikoa honek lau zati izango ditu:

**1.** Ludotekako haurrekin 40 minutuko ekintza burutzea. Ekintza hau prestatzeko 15 minutu utziko dira.

*Gehienez 11 puntu*

**2.** Udalekuetan suerta daitezkeen egoera ezberdinen azterketa.

*Gehienez 9 puntu*

**3.** Udalekuetako irteera baten prestaketa

*Gehienez 8 puntu*

**4.** Euskararen eta bereziki herriko hizkeraren/oiartzueraren erabilera idatziz eta ahoz.

*Gehienez 2 puntu*

Hautagai bakoitzaren puntuazioa ezarri eta gero, berdinketarik gertatuko balitz, zozketaren bidez aterako litzateke hezitzaile lanpostua.

Oiartzun, 2013ko martxoaren 4an

Gazteria eta Kirola Zerbitzua